

2020KO ETIKASI PROGRAMARAKO DEIALDIA

XI. Legealdiaren hasieran Eusko Jaurlaritzak bere sail guztietan giza eskubideen ikuspuntua indartu nahi zuela agerian jarri zuen, bere ekintza guztietan modu orokor batean indartuz. Horren harira, Idazkaritza Nagusitik ateratzen diren hezkuntza aurreikuspen guztiek giza eskubideetan zentratutako hezkuntza ikuspegia izan behar dute.

Honela, Legealdi honek daukan erronka partekatua giza eskubideei buruzko hezkuntza proiektu bat finkatzea izango litzateke, giza duintasunean oinarritua eta bakera, bizikidetzara eta elkartasunera bideratua betiere enpatiaren ikuspuntutik. Helburu nagusia, bizikidetzaren erronka berrien aurrean hezkuntza tresna hezigarriak sortzea eta interakzio sozio-hezitzaileak sendotzea da.

Etikasi Programa, Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) eta Gazteria Zuzendaritzak sustatutako jarduera plana da, zinetan giza eskubideen eta duintasunaren bizipen hezitzailea bultzatzen den bakoitzak ulertu eta bizitu ondoren.

Programaren helburua

Programaren helburua etikari (etika ikasi) eta giza eskubideei buruz ikastea da, kontzentrazio esparrua izateagatik markatuta gelditu diren hiri edo Ipar Irlanda bezalako indarkeria gordina jasandako zonalde diren Europako leku ospetsuetara bisita hezitzaileak eginez. Giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzaren ikuspuntutik, zuzenean eta pertsonalki leku horietan egoteak eta jazotako gertakizun traumatikoei buruzko istorioak ezagutzeak potentzial pedagogiko handia eta iraunkorra dauka. Mundua beste begirada batetik ikustea eta beste pertsonen lekuan jartzea ahalbidetzen digu.

Bisita hauek bost eguneko iraupena izango dute gehienez eta bi talderi eskainiko zaizkie:

Lehen taldea: Lau eguneko Auswichtzerako bisitarako, **Batxilergoko 1. mailako ikaslez osatutako taldeentzako** 30 plaza eskainiko dira gehienez.

Bigarren taldea: Bost eguneko Belfasterako bidaiarako, Lanbide **Heziketako Erdi eta Goi Mailako heziketa zikloetako eta Unibertsitateko karrerako ikasleentzat** 30 plaza eskainiko dira gehienez.

Hiru probintzietako ikasleek Etikasi Programan parte hartuko dutela ziurtatzeko, plaza kopuru zehatz bat gordeko da Euskadiko Hiru Lurralde Historiko bakoitzeko (hau da, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako) gazteentzat bidaia guztietan. Plaza kopurua eta programaren finkatzea urtero zehaztuko da, aurrekontuek ahalbidetzen dutenaren arabera eskaintza eta deialdia finkatuz.

Eskaeren aurkezpen epea urtarrilaren 31tik otsailaren 22ra izango da. Ondoren, otsailaren 22tik martxoaren 11ra bi taldeen materialak jasotzeko epea irekiko da.

Arrazoi desberdinengatik ondo bete gabeko eskaerak egongo balira, eskaeren zuzenketak egiteko 2019ko martxoaren 11tik 21era 10 egun naturaleko epea egongo da.

Parte hartzeko baldintzak

Jarraian zehaztuko dira deialdiko kategoria bakoitzean parte hartzeko baldintzak zeintzuk diren:

Lehen taldea:

EAEko eskoletako **Batxilergoko lehen mailako ikasgela bateko ikasleak** aurkeztu daitezke kategoria honetan. Ikasleek giza eskubideak lantzen dituen **bideo motz bat** aurkeztu beharko dute. **Eskola bakoitzak bi eskaera aurkezteko aukera izango du gehienez (bat gela bakoitzeko)**. Bideoetan, proposatutako gaiari buruzko hausnarketak ezagutarazi behar dira, ondorengo galderetako bati edo gehiagori erantzuna emanez:

- Zer dira giza eskubideak?
- Giza eskubideen urraketaren bat identifikatu dezakezu zure inguruan? Zein?
- Zer da zure ustez giza eskubide urraketa guztiek amankomunean dutena?

Bideoek ondorengo ezaugarriak izan behar dituzte:

- Originaltasuna eta sormena.
- Euskaraz, gaztelaniaz edo bi hizkuntzetan grabatua izan behar da. Gaztelaniaz bada euskara ere agertzea bermatu behar da (azpigitulu edo animazioetan, adibidez).
- Gutxienezko 3 minutuko eta gehienezko 6 minutuko iraupena izango du.
- YouTubek onartutako formaturen batean egina ego behar da. Irudi eta bideo guztiek egile-eskubide gabeak izan behar dute.

Genero desberdineko bideoak onartuko dira: argazki muntaiak, gidoi antzeztuak, dokumentalak, bideo-komikiak, ilustrazio animatuak, ikus-entzunezko olerkiak, kronikak etab. Edozein gailurekin (argazki kamerak, bideokamerak, mugikorrak...) egindako lanak izan daitezke, betiere bideoen kalitatea ziurtatzen dutenean.

Ikasle taldeen izen ematea (I. Eranskina) otsailaren 25era arte izango da. Laburmetraia 2020ko martxoak 12ra arte aurkeztu daiteke YouTuben. Parte hartzaileei posta elektronikoko helbide bat jakinaraziko zaie parte-hartze eskaera bidali dezaten.

Bigarren taldea:

18 eta 30 urte bitarteko EAEko Lanbide Heziketako Erdi eta Goi Mailako Zikloetako eta Unibertsitateko karrerako ikasleek izango dute parte hartzeko aukera.

Ikasleek lau dokumentu bidali behar dituzte izena emateko: egiten ari **diren ikasketetan onartuak izanaren ziurtagiri bat**; eta bestalde, euren interes, jakin-minak, bizipenak eta bizikidetzeta eta giza eskubideekin erlazionatutako motibazioak jasotzen dituen **motibazio eskutitz bat**. Eskutitza euskaraz edo gaztelaniaz idatzi daiteke. Bestalde, **giza eskubideei buruzko** beraiek egindako **hausnarketa bat** ere bidali beharko dute (900 hitzekoa gutxienez eta 1.500 gehienez). Azkenik, **ingeleseko FCE-B2** maila frogatzen duen **ziurtagiria** aurkeztu beharko da.

Ondorengo alderdiak izango dira kontuan hartuko direnak:

- Pertsona gazte honi Etikasi Programan parte hartzera animatu dien arrazoiak zehaztea.
- Originaltasuna eta sormena.
- Giza eskubideei buruzko hausnarketa pertsonal eta kritikoa

Martxoak 8ra arte izango dute izen emateko (II. Eranskina) epea. Parte hartzaileei posta elektronikoko helbide bat jakinaraziko zaie parte-hartze eskaera, motibazio eskutitza eta gaiaren hausnarketa pertsonala bidali ditzaten 2020ko martxoaren 13a baino lehen.

Hautaketa prozesua

Bi prozesu egingo dira, bat kategoria bakoitzerako:

Lehen taldea (Batxilergoko 1. Mailako ikasleak):

Lehen azaldutako baldintza guztiak betetzen dituzten laburmetrai guztiak ondorengo irizpideen arabera ebaluatuko da:

- Originaltasuna eta sormena. 2 puntu
- Giza eskubideen gaia zuzenean heltzea. 2 puntu
- Gazteek izatea protagonismoa. 2 puntu
- Genero ikuspegia. 2 puntu
- Kalitate teknikoak bigarren mailako irizpide bezala puntuatuko du. Puntu 1
- Hiru hizkuntzako hezkuntza modeloa daukaten ibilbideak aintzat hartuko dira. Puntu 1.

Epaimahaia parekidea izango da eta hezkuntza, giza eskubide eta kultura arloetako pertsona ezagunez osatua egongo da EGK-ko pertsona batez gain. Epaimahaia izango da eskatutako baldintzak betetzen ez dituzten laburmetraiak onartzea edo kanporatzea erabakiko duena. Epaimahaiaren erabakia agerikoa izango da.

Bigarren taldea (Lanbide Heziketako Erdi eta Goi Mailako Zikloetako eta Unibertsitateko karrerako ikasleak)

Hautagaien ebaluazio bi fasetan egingo duen epaimahai bat izendatuko da.

A. Hauek dira bigarren fasea igarotzeko irizpideak:

- Izen emateko II. eranskina
- Ikasketetan onartuak daudela ziurtatzen duen dokumentua (aurretik izendatutako kurtsoetako ikaslea dela ziurtatzeko).
- Motibazio eskutitza.
- Ingeleseko FCE-B2 maila frogatzen duen ziurtagiria.

- Giza eskubideei buruzko hausnarketa (5 puntu).

Hautaketa faseko lehen zati honetan ebaluazioa aurkeztutako informazioaren arabera bakarrik egingo da. Ikasleak aurkeztutako agiri guztien egiazkotasuna frogatu beharko du.

B. Parte hartzaile guztien artean hautatuak izan diren ikasleek prozesuaren bigarren fasearekin jarraituko dute epaimahaiarekin banakako elkarrizketa bat eginez. Ondorengo gauzak izango dira kontuan hartuko direnak:

- Eskatzailearen motibazioa (puntu 1).
- Bakoitzaren gaitasun eta trebeziak (puntu 1).
- Ingeles maila (puntu 1).

Epaimahaia parekidea izango da eta hezkuntza, giza eskubide eta kultura arloetako pertsona ezagunez osatua egongo da EGK-ko pertsona batez gain. Epaimahaia izango da eskatutako baldintzak betetzen ez dituzten laburmetriak onartzea edo kanporatzea erabakiko duena. Epaimahaiaren erabakia agerikoa izango da.

Ebazpena / Jakinarazpena

Ondorengo izango da hautaketa prozesuko kronograma:

Lehen taldea

Izen-emateak	2020ko urtarrilak 30 – otsailak 25
Laburmetria bidaltzeko epea	2020ko otsailak 25 - martxoak 12
Izen-emateetako akatsen zuzenketak	2020ko martxoak 13 – martxoak 22
Ebazpena	2020ko apirilak 3
Bidaiaren aurreko formakuntza	2020ko apirila - maiatza
Bidaia	2020ko ekaina
Ebaluazioa	2020ko iraila

Bigarren taldea

Izen-emateak	2020ko urtarrilak 30 - martxoak 8
Motibazio eskutitza bidaltzeko epea	2020ko martxoak 8 - martxoak 12
Izen-emateetako akatsen zuzenketak	2020ko martxoak 13-22
Banakako elkarrizketa	2020ko martxoak 30 eta 31
Ebazpena	2020ko Apirilak 3
Bidaiaren aurreko formakuntza	2020ko apirila - maiatza
Bidaia	2020ko uztaileko lehen hamabostaldia
Ebaluazioa	2020ko iraila

Hautatze-prozesua amaitzen denean emaitzak jakinaraziko dira, pertsona bakoitzari programan parte hartzeko bere eskaria onartua izan den ala ez esanda. Ebatziko duen organoa Euskadiko Gazteriaren Kontseilua izango da eta www.egk.eus webgunean publikatuko da.

Etikasi programan parte hartzeko hautatuak izan diren pertsonak ebazpena jakinarazten denetik 10 egun naturaleko epea izango dute, gehienez, programan euren parte-hartzea berresteko. Hau da, 2020ko apirilaren 13a arte.

Pertsona parte-hartzaileen onarpenak bidaia aurretik izango den formakuntza egitea dakar. Formakuntza honetan dokumental bat ikusi beharko dute eta hausnarketa bat egin, dena gida didaktiko baten laguntzarekin. Bisitaren ostean bigarren lan bat egin beharko da bisitatuko den leku europarrean eta Euskadin gertatutakoaren memoria kritikoez amankomunean dituzten elementuak identifikatzeko.

Programaren finkatzea aurrekontuetako xedapenak ahalbidetzen duen urteko eskaintza eta deialdiaren bitartez gauzatuko da. Honen bitartez Batxilerreko 1. ikasturteko, Lanbide Heziketako Goi edo Erdi mailako edo unibertsitateko lehen mailako ikasleek memoriarekin ikuspegitik esanguratsuak diren Europako lekuak bost egunez bisitatzeko ahalbidetuko da.